

2021EKO MAIATZAREN 6AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Sei

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hogeita bat

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak eta Aitziber Yurrebaso Irazustabarrena itzulpen lanak egiten.

1.- AURREKO AKTA. 2021-03-25

Aurreko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- KONPROMISUZKO KREDITUEN ERANSKINAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.2021EKBO0031

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- *Antolakuntza zerbitzuak sentsibilizazio programa 2 urterako kontratatzeari hasiera ematea aurreikusi du.*

2.- *2021eko aurrekontuak 0110.227.231.00.04 partidan beharrezko kreditua aurreikusten du, baina hasierako aurrekontuarekin batera onartutako Konpromiso Kredituen Eranskinean ez dago 2022 eta 2023 ekitaldietarako aurreikuspen hori.*

Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo PROPOSAMENA

Lehenik.- *Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kredituak txertatuz:*

2.022 urtea:

0110.227.231.00.04: 28.467.43 €

2.023 urtea:

0110.227.231.00.04: 14.233,71 €

Bigarren.- *15 egun jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da eta G.A.Oean argitaratuko da behin-betiko onespeneraren iragarkia.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

b.- 2021/02/25EKO OSOKO BILKURAREN ERABAKIARI CAFEK AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA. ERABAKI HORREN BIDEZ, ERAIKUNTZA, OBRA ETA INSTALAZIOEN GAINEKO ZERGAN "Q" ERAIKINA BIRGAITZEKO ESKATUTAKO HOBARIA UKATU ZEN. 2021IDBO0003

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

"AURREKARIAK

1.- 2020-12-14. CAF, S.A.ren eskaera, "Q eraikina birgaitzea" interes berezikotzat edo udal-erabilgarritasuntzat jo dadin, eta, ondorioz, EIOZn hobaria izan dezan.

2.- 21-02-25. Udalbatzaren erabakia, eskaera ezesten duena.

3.- 2021.03-29. CAF, S.A.ren berraztertzeko errekurtsoa, aipatutako osoko bilkuraren erabakiaren aurka, osoko bilkuraren erabakia baliogabetzeko eta EIOZ hobaria jasotzeko eskaera baiesteko eskatuz, honako arrazoi hauengatik:

- Oria ibaian CAF, S.A. enpresaren instalazioen inguruan aurreikusitako obra hidraulikoen interes orokorra eta onura publikoa.

- Aurreikusitako obra hidraulikoen edukia eta irismena, eta horien guztien interes orokorra:

a) Eremu horretako uholde-arriskua kudeatzeko planean aurreikusitako obra hidraulikoen eta enpresaren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuten dieten obren arteko lotura estua; zehazki, Q. eraikina birgaitzeko obrei dagokienez.

b) Lehenengo onura publikoa eta interes orokorra uholde-arriskuaren arazoari erantzuteko aurreikusitako obra guztietara hedatzen da.

- EIOZ eta hobaria:

a) Q eraikina birgaitzea ez da enpresa-nahiaren ondorio; aitzitik, kausa-efektu erlazioa dago obra hidraulikoen (arrazoia) eta Q eraikina birgaitzeko obren (efektua) artean.

b) Lehenengo onura publikoa (obra hidraulikoak) interes orokorra eta onura publikoa bigarrenetara hedatzen da (Q eraikina birgaitzea).

c) Ordenantza fiskaleko a) ataleko obren zerrenda ez da itxia eta baztertzailea.

d) Udalbatzari dagokio Q eraikina birgaitzeko udal-interesa aitortzea, eta koherentea eta kontsekuentea da 2020ko hitzarmena sinatzearekin.

e) Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiaren (2013-07-04) eta Murtziako Justizia Auzitegi Nagusiaren (2013-05-03) epaien interpretazio desberdina udal interpretazioarekiko, izan ere, Q eraikina zaharberrituta, murriztu egiten da uholde-arriskua duten pertsonen eta eraikinen zenbatekoa, eta handitu, berriz, deuseztatu edo minimizatzeagatik onuradunena.

4.- 2021-04-19. Idazkaritzako ondorengo txostena ematen da eta aipatutako aurrekariei aipamena egin ondoren, hau adierazten da:

OINARRI JURIDIKOAK

I.- Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari aplikatu dakizkiokeen zerga-onurei dagokienez, salbuespenak eta hobariak aurreikusten dira.

Lehenengoei dagokienez (salbuespenak), gogora ekarri behar da Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 100,2 artikulua, hau da:

“Está exenta del pago del impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sea dueño el Estado, las comunidades autónomas o las entidades locales, que estando sujeta al impuesto, vaya a ser directamente destinada a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por organismos autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.”.

Beraz, salbuespenari dagokionez, argi dago ez dela egokia, eraikiko den eraikina bulegoetarako izango baita.

- Bigarreni dagokienez (hobariak), udalek libreki erabaki dezakete EIOZn hobariak ezartzeari buruz, betiere Toki Ogasunei buruzko Legearen Testu Bateginaren 103,2 artikuluan ezarritako mugarekin.

II.- Hobariak onartuz gero, udalek konfigurazio-askatasun osoz ezarri ahal izango dituzte horiek aplikatzeko baldintza formalak eta materialak, eta, kasu horretan, erregelamendu-egintza horrekin agortuko dute legean aurreikusitako diskrezionaltasun-marjina (azaroaren 3ko 1639/2011 Epaia. 2011, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiarena, Administrazioarekiko Auzien Sala, 2. atala).

III.- Beasaingo Udalak udal-intereseko obratzat hartu behar diren kasu zehatz batzuk arautu ditu, hobaria EIOZn aplikatzeko:

- Aurrekoaren harira, adierazi behar da ordenantza fiskaleko a) atalak (% 95erainoko hobaria) interes bereziko aitortzen dituela adierazten diren gizarte- eta kultura-inguruabarrak biltzen dituzten obrak, jarduketak, eraikuntzak edo instalazioak, eta zerrenda itxia dela, hura aplikatzeko betekizun formalak eta kasu bakoitzerako hobari-ehuneko zehatza zehazten direlako.

- Ordenantza fiskalak arautzen ez duena da udal-intereskotzat jo daitezkeen obra, eraikuntza edo instalazioen kasuak, baldin eta deklarazio hori justifikatzen duten inguruabar historikoak edo artistikoak badaude edo enplegua sustatzen bada. Kasu horietan, Udaleko Osoko Bilkurak baloratu beharko du kasu zehatz bakoitzean kalifikazio hori justifika dezaketen inguruabar berezi horiek gertatzen diren.

- Era berean, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzari hobariak ematea aurreikusten da, baina hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren

berariaz aurreikusitako kasu bat da (103,2 artikulua). No depende de la concurrencia de ninguna de las circunstancias a las que se hace referencia en la ordenanza fiscal.

IV.- Gauza bat da eraiki nahi den eraikina egin beharreko obra hidraulikoen ondorio izatea, eta beste bat eraikin berriak legeak eta ordenantzak hobariaz baliatzeko eskatzen dituzten baldintzak betetzea.

ONDORIOAK

Lehenengoa. Zuzenbidean hobeto oinarritutako arrazoibide koherenteago baten kalterik gabe, bulegoetarako izango den "Q" eraikinaren birgaitzean, ez dago udal ordenantza fiskalak arautzen dituen baldintza sozial eta kulturaletako bakar bat ere eraikina eraikitzeke obrak udal-intereskotzat jotzeko.

Bigarrena. Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bateginaren 9.1 artikuluan adierazitakoaren harira:

"1. No podrán reconocerse otros beneficios fiscales en los tributos locales que los expresamente previstos en las normas con rango de ley ...".

Eskatutako obretarako EIOZren hobaria bideraezina da, zaila baita obra hidraulikoen interes orokorra eta onura publikoa hedatzea onura pribatua eta ez publikoa duten obrei, Q eraikina birgaitzeko eraikuntzarekin gertatzen den bezala. Sinatutako hitzarmenean, eskatzaileak onartzen du obra hidraulikoak egitearen ondorioz uholde-arriskua kentzeak berak egiten duen jarduera industrialari onura ekarriko diola, baita segurtasunari eta etorkizuneko egonkortasunari ere.

Hirugarrena. "Udal-interes berezia" deklaratzeko, kontuan hartu behar da obra zertarako egin den.

Azaldutakoaren arabera Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengoa PROPOSATU DIO::

Lehenik.- "Q" eraikinaren birgaitze obren udal-intereseko deklarazioa ukatzearen eta ondorioz, Eraikuntza, obra eta instalazioen gaineko zergari buruzko hobaria ukatzearen aurka aurkeztutako berraztertzeke errekurtsua EZ ONARTZEA, aipatutako oinarri juridikoak direla medio.

Bigarren.- Ebazpen honen eta dagozkion helegiteen berri ematea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- COVID-19AK ERAGINDAKO KALTEAK ARINTZEKO BEASAINGO TXIKIKAZKO MERKATARIEI, ZERBITZU SEKTOREKOEI ETA OSTALARIEI EROSKETA BONUAK EMATEKO OINARRIAK. 2021MEPO0017

Ezagutzera eman da, Herritar batzordeko proposamena:

"Ondorengoak kontuan hartuta:

1. 2020ko urtarrilaren 30ean, Nazioarteko Osasun Erregelamenduaren Larrialdietako Batzordearen gomendioz, Munduko Osasun Erakundeko zuzendari nagusiak koronabirus delakoaren sorrera Nazioarteko Garrantzizko Osasun Publikoko Larrialditzat jo zuen.
2. Harrezkero. Nazioartea, estatuan eta gure autonomia erkidegoan antolatze eta euste neurriak hartu dira. COVID-19 gaixotasunari goiz antzemanaz birusaren hedapena eteteko kasuak isolatu eta artatzeko, kontaktuen jarraipena egieko eta arriskuaren araberako gizarte-gizarte urruntzeko neurriak sustatzeko.
3. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Covid-19ak eragindako osasun krisiaren Kudeaketaarako Alarma Egoera delaratu du.
4. Alarma egoera Esapiniar Estatuko Lurralde osoan deklaratu da eta herritarren konfinamendua ekarri du ondorio gisa. Konfinamendu garai honetan Espainiar Estatuak neurriak hartu ditu eta honek eragin zuzena izan du herritarrengan bai eta industria merkataritzan eta ostalaritzan ere, izan ere, lehen beharreko produktuak ez dituzten komertzio eta establezimenduen itxiera ekarri du, horrek dakarren galera ekonomikoekin.

Hori dela eta, Beasaingo Udalak egoera larri hau aintzat harturik, COVID-19 pandemiak sortu dituen eraginak leundu eta Beasaingo merkatariei, ostalariei eta zerbituzetakoiei laguntza ematea erabaki du. Horretarako erosketa bonoak atera ditu.

LEGERIA APLIKARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egitea.

Lehenik: Beasaingo Udalak COVI-19ak eragindako kalteak arintzeko eta merkataritza sustatzeko Beasaingo txikikazko merkataritzaritzako eta ostalaritzako establezimenduetan saltzeko erosketa bonuak atera ditu. Erosketa bono horien oinarriak onartzea eta deidaldi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.

Bigarrenik: Bonu horiek 50 eurokoak izango dira. Erosleak 30€ ordainduko du eta Udalak 20€. Ekimen honetara atxiki diren establezimenduetan salduko dira berauek eta merkataritza bakoitzari 20 bonu banatuko zaizkio.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Bozketa eginda, aho batez onartu dira ondorengo oinarriak:

COVID19-ak eragindako osasun krisiak sortutako ondorioak arintzeko Beasaingo establezimenduetan kontsumoa sustatzeko (bonuen bidez) dirulaguntzen deialdia.

1. XEDEA

Oinarri hauen xedea Beasaingo merkataritza sektoreari dirulaguntzak ematea da. Beheko establezimendu hauei:

- Txikikazko merkataritza
- Ostalaritza
- Zerbitzu sektorea

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 50.000 euroko kreditua aurreikusia du honetarako sortutako aurrekontu honetan: 0243.471.433.10.01
Dirulaguntzak: COVID

3. ONURADUNAK

Beasainen helbide fiskala duten ostalariak, merkataria eta zerbitzu sektorekoak.

4. DIRULAGUNTZAK ESKATZEN DITUZTENEN BEHARRAK

1-Estabezimendua Beasaingo Udalerrian izatea.

2-Honekin batera doan eranskina beteta atxikita egotea. (Eranskina)

3-Dagokion JEZren epigrafean alta emanda egotea.

4-Udalarekin zorrik ez izatea.

5- Zerga betebeharretan Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuak egotea.

Egiaztapen hau ofizioz egingo da administrazio eskudunetan, salbu eta interesduna modu arrazoituan aurka agertzen bada.

6-Atxikitako dendak konpromisoa hartzen du programara atxikita dagoela adierazten duen kartela saltokian ikusteko moduan jartzeko.

7-Udalak ordainketa egiteko kontu korrontearen zenbakia ematea.

5. BONUAK

5. Bonuen balioa: 50 eurokoa izango da.

Bezeroak 30 euro ordainduko ditu eta Udalak 20 euroko (%40) ekarpena egingo du.

6. Bezeroek bonuak erosteko tokiak: ekimen honi atxikitako estabiezimenduak.

7. Bonuen erabilera: Bonu bakoitza erosi den estabiezimenduan erabili beharko da.

8. Estabiezimenduek bonuak eskuratzeko tokiak: iGunea eta Bareak Merkataritza Elkartearen bulegoa.

9. Bonu kopurua estabiezimendu bakoitzeko: 20 bonu banatuko zaizkio merkataritza bakoitzari.

6. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO ZURIKETA

iGunean astero saldutako bonuak eta beraiei dagozkien fakturak aurkeztu beharko dira.

7. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza horiek emateko nahikoa kreditu dagoela kontuan hartuta, 4.artikuluari ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie, eta 5. artikuluan adierazitako zenbatekoari.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak.

Ordainketa hileko 15ean edo 30ean gauzatuko da, bonuak eta beraiei dagozkien fakturak aurkeztu ahala.

8. ESKAEREN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

9. BONUEN IRAUNGITZE-DATA

Bonuak 2021eko uztailaren 15era arte erabili ahalko dira.

10. OINARRIAK ARGITARATZEA

Oinarri hauek Osoko Bilkuran onartu ondoren, BDNSra bidaliko dira argitaratzeko eta ondoren GAOn argitaratuko dira.”

b.- MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONENTZAKO BEASAINGO LOINATZ EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA. ZUZENDUTAKO FAKTURA ONARTZEA.2016BIBO0028

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa.

AURREKARIAK

I.- 2021-03-25. Zerbitzuak emateagatik faktura ordaintzeari buruzko erabakia:

“Bigarrena. GOXARA S.L. enpresari aurkeztutako faktura ordaintzea, kopurua 20.373,48 €, Loinatz eguneko zentroaren erabiltzaileei beren etxeetan uztailaren 11tik abuztuaren 2ra bitartean emandako zerbitzuagatik.”

II. 2021-03-29. Goxara S.L.ri hartutako erabakiaren jakinarazpena

III. 2021-04-07. Goxara SLren jakinarazpena, non adierazten baita I. atalean aipatutako fakturan akats bat dagoela BEZari dagokion kopuruan; fakturaren zenbateko zuzena 21.138,09 €koa da.

Horren ondorioz, Herritarrak Batzordearen proposamena kontuan izanik Udal Osoko Bilkurak honako hau ERABAKI DU:

Hartutako erabakia zuzentzea eta GOXARA S.L. enpresari aurkeztutako faktura zuzendua ordaintzea, kopurua 21.138,09€.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

c.- BALDINTZA PLEGUAK ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA ONDORENGOA KONTRATATZEKO: PLAZAPE TABERNAREN USTIAPENA, BEASAINGO UDALAREN JABETZAKOA, ONDOKO KOMUN ETA DUTXA PUBLIKOekin BATERA, ETA PLAZAREN (AZPIA PLAZA ETA ZUBIMUZU) ETA MERKATUAREN DINAMIZAZIOA. 2020IDBO0032

“Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, aipatutako zerbitzua kontratatzeke baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

- 1.- *Prozedura*: irekia publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.
- 2.- *Izapidetzea*: arrunta
- 3.- *Loteak*: EZ
- 4.- *Lizitazio prezioa/ urteko*: Diruzko kanona: 9.314,51 € + BEZ
- 5.- *Egikaritze epea*: 2 urte
- 6.- *Luzatzeko aukera*: 3 urte (1+1+1)
- 7.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa*:

Urteko negozio-bolumena, erabilgarri dauden azken hiru ekitaldietako ekitaldi onenari dagokiona, 21.300,00 €-koa edo handiagoa.

8.- *Kaudimen tekniko*:

- a) Gehienez azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusiak, kontratuaren xede direnen antzekoa, baina bakarrik ostalaritza jarduera ustiatzeari buruzkoak.

Egindako zerbitzu edo lan nagusiak, kontratuaren xede direnen antzekoak diren ala ez jakin ahal izateko, plegu honetako 1. klausulan adierazitako CPV kodigoa da kontuan izan beharrekoa, hain zuzen ere:

55330000-2: kafetegi zerbitzuak

55410000-7: tabernak kudeatzeko zerbitzuak

- b) Esleipendunak beharrezko giza baliabide guztiak izango ditu, eta haren ardura izango dira langileekiko lan harremanak eta beste era batekoak, baita kontratuaren xedea ondo eta era eraginkorrean betetzeko egin beharko diren ordezkapenak ere.

Taberna zerbitzuaren prestazioari atxikitako langileek ondoregoa izan beharko dute:

- Elikagaiak maneiatzeko lizentzia
- Hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila izatea, ahozko trebetasunean.

- c) Enpresa kontratistak pertsona bat gutxienez izendatuko du koordinatzaile tekniko edo arduradun, eta haren bidez helaraziko zaio Beasaingo Udalari kontratuaren xedeari lotuta egin nahi duten edozein komunikazio. Honi ere hizkuntza gaitasunarekiko, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila izatea eskatuko zaio, ahozko trebetasunean.

Hizkuntza gaitasuna karatula honetako 13. atalean adierazitako moduan egiaztatuko da.

Lizitatzaillearen idatzizko konpromisoa onartuko da, kontratua esleitu aurretik, taberna zerbitzuaren prestazioari atxikitako langileak eta koordinatzailea identifikatzeko eta aipatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

9.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua: 20 egun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.*

10.- *Adjudikazio irizpideak:*

1. irizpidea, formula automatikoekin ebaluaezinak: 50 puntu arte.

1.- Lokalaren, komunen eta dutxaren baldintza higieniko-sanitarioak eta estetikoak hobetzea: 15 puntu arte.

10. Sukaldeko higiene- eta osasun-baldintzak hobetzea: 5 puntu arte.

11. Tabernako baldintza higieniko-estetikoak hobetzea: 5 puntu arte.

12. Komunen eta dutxaren higiene- eta estetika-baldintzak hobetzea: 5 puntu arte.

Balorazioa egiteko, azalpen-memoria txiki bat aurkeztu beharko da, egin nahi den hobekuntza zehaztuz.

2.- Dinamizazio kulturala eta azokaren dinamizazioa: 35 puntu arte

Kontratua irauten duen epe osoan egin nahi diren jardueren eta ikuskizunen memoria aurkeztuko da (2 urte). Memorian, horiek zerrendatzeaz gain, honako hauek zehaztuko dira:

- Ekintza mota (antzerkia, dantza, musika, tailerra...)
- Aurreikusitako data
- Zuzenduta dagoen publiko mota
- Hedapena egiteko modua
- Aurrekontua

Honako hauek baloratuko dira:

11. Proposatutako ikuskizunetako edota ekintzetako edukien aniztasuna.

12. Adin desberdinei zuzendutako programazioa.

13. Ideia berritzaileak.

14. Udalarekin koordinatzeko proposamena. Maiztasuna eta modua: telefonoz, bilerak eginez, idatziz...

Oharra: Esleitzean proposatutako datak aldatzeko agindu ahal izango dio Udalak esleipendunari, baldin eta udal-agendan aurreikusitakoarekin bat badatoz.

2. irizpidea: formula automatikoen bidez ebaluatzen direnak: 50 puntu arte.

Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.

1.- Kanona eskudirutan, gutxienez karatulan ezarritakoa, hau da, 9.314,51€ + BEZ urtean.

Formula honen arabera puntuatuko dira:

$$PI = EI/Ea \times 50$$

Non:

PI: Puntuazioa lizitatzailerena

EI: Eskaintza lizitatzailerena

Ea: Eskaintza altuena”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Obligatoriedad del nivel B2 a nivel hablado. El nivel 1 no capacita para tener una conversación?. No estamos haciendo una contratación de personal y para trabajar como camarero, no es requisito tener titulación.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Horren inguruan esan, ikusita zerbitzuaren orientazioa jendearekin egotea dela, kontsumitzaileak eskubide guztia dute euskaraz edo gaztelaniaz komunikatzeko. Hasiera batean ez zen oinarri juridikorik aurkitzen hori horrela eskatzeko baina batzordeak hitz egindakoaren arabera, oinarri juridiko hori badago eta guretzat garrantzia du aurrera eraman ahal izateko. B1-B2, hori hizkuntza politikak esaten du. Pentsatzen dut hori dela hoberena.

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Hizkuntza eskakizuna sartzarekin ados. Pozten gara oinarri juridikoa izatea horretarako, etorkizunean ere kontuan izateko. Bestalde batzordean ere aipatu zen komunak margotzea ez litzatekeela gaizki egongo, txukuntze arren.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Balorazioan ere sartuta dago. Horrek ez du esan hori eskaintzen ez duen norbaitek lizitazioa irabazi ez dezakeenik. Hori horrela bada Udalaren eskura egongo litzateke hori berritu edo txukundu bat ematea. Askok erabiltzen den komuna da, trantsituan dabilen jendeak ere ohitura daukana. Oraingo lizitazioan garbitasunean indar gehiago jartzea eskatzen da.”

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Jarraipena zein azpisailek egingo dio, merkataritza, kultura?”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Arlo ezberdinak. Herritarrak azpisaileko hainbat azpisailek, kulturako hiru programa gutxienez eskatu dira, azoka dinamizatze ere lau taller. Beraz, jarraipen amankomuna izango da. Kontratazio mahaiaren ere, kultura, merkataritza eta hizkuntza politika teknikariak daude. Aniztasun hori bilatu nahi izan da.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)

Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK.

a.- BEASAINGO INDAR, 7. SEKTOREKO A LURSAILAREN XEHETASUN AZTERLANARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA. 2021AEST0001

Lurralde batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

I.- 2021-02-18: Alkatearen Ebazpena aipatutako Xehetasun Azterlanari hasierako onespena emateari buruzkoa.

II.- 2021-02-18: hasierako onespeneren ebazpena, INDAR ELECTRIC, S.L.ri jakinaraztea, alegazioak aurkezteko epea emanez. Legeak adierazten duen hogei laneguneko epean, ez zuen inolakorik aurkeztu.

III.- 2021-02-19: Berrian espedientea jendaurrean jarri izanaren iragarkia. 2021-02-24: Diario Vascon espedientea jendaurrean jarri izanaren iragarkia. 2021-03-03: GAOean espedientea jendaurrean jarri izanaren iragarkia.

Legeak adierazten duen hogei laneguneko epean, 2019-04-12an amaitzen zena ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, Lurralde Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egin dio:

Lehenik. Beasaingo Indar, 7. sektoreko A lursailaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onespena ematea.

Bigarren. Erabaki honen berri sustatzaileari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

b.- JASANGARRITASUN ENERGETIKOA BATZORDEAREN ARAUDIA. HASIERAKO ONESPENA. 2021IDBO0014

Lurralde Batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea eta administrazio bakoitzeko erakundeak koordinatzekoa betetzeko egin da Araudi hau.

9. artikulua zehazten du Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Lurralde Historikoetako administrazioek eta udalerrietako administrazioek batzorde bana izango dutela jasangarritasun energetikorako.

OINARRI JURIDIKOAK

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: 4.1, 20.1 c), 47.1, 49 eta 52.2 106, 107, 111 eta 113.

- Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua: 82.2, 123. eta 126. artikulua.

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 80,82, 83, 129 eta 133. Artikuluak.

PROPOSAMENA

Horren ondorioz, Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egin dio. Onartzeko hasierako onespena behar da:

Lehenik. Jasangarritasun Energetikoa Batzordearen araudiari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, GAOean iragarkia argitaratua eta adieraziz epea horretan ez bada inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkezten, Araudia behin-betiko onartua geratuko da eta indarrean sartzeko testu osoa toki berdinean argitaratu beharko da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Herritarren parte hartze inguruan gehienez ere 4 herritarrek parte hartuko dute. Ez zaigu oso argi geratzen bost herritar etorriko balira parte hartzea zer pasatuko litzatekeen, hau da, 4ko muga hori kontuan izan beharko genukeen edo ez."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Hor esan genuena zen Alkateak izango duela ahalbidetzea bosgarren horrekiko. Hori baino gehiago izango balira, zozketa egin eta Laura mugatu beharko genuke. Bost sei egongo balira saiaturiko ginateke denak sartzen."

Adur Ugartemendia jaunak (EAJ-PNV): "Idatzita dagoen moduan ulertzen dugu, bost edo sei badira, Alkateak esango duela."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Eta ez dago aukerarik herritarrek parte hartuko dutela etorri ahala. Gehiago bat ezarri beharrean dago?. Zalantza asko ditugu jendeak parte hartzeko borondatea izateari buruz baina guretzat horrelako batzordea sortzen denean lehentasunezko helburua izan beharko litzateke herritarren parte hartzea bultzatzea."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Mugatzek duen helburua batzordearen eranginkortasuna eta etortzen direnak etorri ditezela jakin minetik eta interesetik gaiak proposatzea."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Jakin minetik eta interesetik suertatzen zaigun zalantza da baita era ikasketka edo formazioa eskatzea. Iruditzen zaigu egon daitekela norbait gai horretan ikasketka edo formazioa ez izatea baina interes berezia izatea. Gure zalantza da exkitu behar zaion."

Adur Ugartemendia jaunak (EAJ-PNV): “Lan talde honen dinamika ikusita herritarrek izan behar dute eskarmentua gai horretan. Arraroa egiten zait imajinatzea ez formakuntza ez lanpostu aldetik esperientziarik ez duen pertsona batek gai hauetan aditua izatea. Lau izate horrek iruditzen zaigu lan talde honi balantza bate mango liokeela.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Adibidez mugikortasun mahaian ez genuen horrelakorik jarri. Hor herritar guztieri banatu zitzairen deia.”

Adur Ugartemendia jaunak (EAJ-PNV): “Gure ustez mugikortasun mahaia dinamikoa da eta hau, aldiz, proposamenak ekarri eta landu beharreko batzordea da. Hau dela eta profila teknikoagoa da. Bi lantaldeen dinamika eta izaera oso ezberdina da.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo araudiari hasierako onespena eman zaio:

“

JASANGARRITASUN ENERGETIKO BATZORDEAREN ARAUDIA

ARRAZOIEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusitako helburuak lortzeko bidean, eta administrazio bakoitzeko erakundeak koordinatzeko, 9. artikulua zehazten du Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lurralde historikoetako administrazioek eta udalerrietako administrazioek batzorde bana izango dutela jasangarritasun energetikorako, edo antzeko ezaugarriak eta funtzioak dituzten erakundeak.

I. KAPITULUA.

XEDAPEN OROKORRAK

1.- Artikulua. Definizioa

Araudi honen bidez Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea sortzen da, osaketa arautzen da, funtzioak zehazten dira eta funtzionamenduaren araubidea ere ezartzen da.

Araudi honen helburua gizarte eragileek, elkarteek, erakunde publiko adituek, gizartearen ordezkariak eta langileen ordezkariak Jasangarritasun Energetiko Batzordearen politika diseinuan eta erabakietan benetan parte hartzen dutela ziurtatzea da.

2.- Artikulua. Helburu eta funtzioak

- 11. artikuluan aipatzen den, eraikinen, instalazioen eta parke mugikorraren inbentarioaren onarpena proposatzea.

- Landuko diren gaien inguruko herriko egoeraren azterketa sustatzea.
- Energiarekin zerikusia duten udal politikaren jardun-ildoak proposatzea.
- Gaiarekin lotutako udalaren plan eta politiken jarraipena egin eta eragina aztertzea.
- Aipatutako Legea betetzeko hartutako neurrien garapena gainbegiratzea eta bermatzea, bai eta bertan ezarritako helburuak betetzen direla ere.
- Bere jarduketa-plan energetikoaren egoerari eta garapenari buruzko informazioa ematea aldizka.

II. KAPITULUA.

JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN BATZORDEAREN OSAKETA

3.- Artikulua. Osaera

1. Jasangarritasun Energetiko Batzordea honela osatuta egongo da:

a) *Lehendakaria: Alkatea; alabaina, edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakaritza.*

Lehendakaria kide kualifikatutzat hartuko da, eta kalitatezko botoa izango du.

b) *Lehendakariordea: Lurralde Batzordeko Lehendakaria izango da. Lehendakaria ordezkatu du, azken honen kargua hutsik dagoenean, ez dagoenean edo gaixo dagoenean.*

c) *Batzordekideak: Lurralde Batzordeko zinegotziak.*

Titular edo ordezko gisa parte hartuko dute. Horretarako, Lurralde Batzordearen osaerari buruzko Alkatezaren Ebazpena hartuko da kontuan.

d) *Langileen ordezkariak.*

e) *Jarduera udalerrian edo eskualdean garatzen duten elkarteetako eta Beasaingo enpresetako gehienez lau kide. Batzordearen Lehendakariak aukeratuko ditu, udalean ordezkaritza duten talde politikoek proposatuta.*

f) *Herritarrak: Gehienez lau herritarrek parte hartuko dute, energiaren inguruan ikasketak edo formazioa dutenak.*

Deialdi publikoa egin ondoren, aipatutako baldintza betetzen dutenekin zerrenda egingo da. Lau pertsona baino gehiagok parte hartu nahi badute, batzordekideak zozketa bidez hautatuko dira (2 emakume eta 2 gizon), eta gainerakoak itxaron-zerrendan sartuko dira, lanpostu hutsak betetzeko.

Lehendakariordeari eta batzordekideak diren zinegotziei kontsulta egin ondoren, Alkateari ahalmena ematen zaio parte-hartzaileak hautatzeko, adierazitako moduan egin ezin bada.

g) Idazkaria (Ingurumen alorrean Udalari Aholkularitza ematen dion teknikaria), hitzarekin baina botorik gabe.

Lehendakariak, Lehendakariordeak edo edozein kidek hala proposatuz gero, Batzordeko bileretan parte hartu ahal izango dute, batzordeko kideak izan ez arren, hitzarekin baina botorik gabe:

h) Energia, Ingurumena edo Lurralde Antolamenduari dagokion Udal edo eskualdeko teknikariek.

2. Batzordea osatzen duten pertsonen izendapenean eta hautaketan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 eta 23. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

3. Batzordean parte-hartzaileek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira, Udalak onartutako hizkuntza irizpideak kontuan izanda.

4. Lehendakariak, bere ekimenez edo batzordekideren batek eskatuta, iritzi kualifikatuak behar dituen gairen bati buruz, adituak gonbidatu ahal izango ditu bileretan parte hartzera. Pertsona horiek ez dute boto-eskubiderik izango..

4.- Artikulua. Batzordeko kideen izendapena eta kargu-uztea.

1. Batzordeko kideak Alkateak izendatuko ditu.

2. Kideek aldez aurretik onartu beharko dute beraien izendapena.

3. Batzordeko kideen izendapenen iraupena Korporazioko agintaldiarena izango da. Honako arrazoi hauengatik amaituko dira izendapenak:

a) Kide izateari uko egiteagatik.

b) Zinegotzien kasuan, epai irmo baten bidez kargu publiko bat betetzeko ezintasuna edo ezgaitasuna aitortzen denean.

c) Kargua edo ordezkaritza uzteagatik.

4. Kargua utziz gero, Alkateak beste izendapen bat egingo du.

III. KAPITULUA.

FUNTZIONAMENDUA

5. Artikulua. Funtzionamendua.

Batzordea urtean gutxienez 4 aldiz bilduko da.

Batzordeak 3 hilez behin egingo ditu ohiko bilerak. Ezohiko bilerak, berriz, lehendakariak beharrezkotzat jotakoan, batzordekideak diren zinegotziek proposatutakoan egingo dira, edo gutxienez kideen erdiek hala eskatzen dutenean.

Bileren deialdia lehendakariak erabakiko du, eta bilerarako aurreikusitako eguna baino 5 egun balioudun lehenago egingo da. Idazkaria arduratuko da kideei helarazteaz telematikoki.

Deialdiarekin batera gai-zerrenda eta bileran aztertu beharreko gaien dokumentazioa bidaliko dira.

Bilkurak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko beharrezkoa izango da Lehendakariaren eta Idazkariaren presentzia, edo bestela, horiek eskuordetutako pertsonena, eta Batzordeko kideen gehiengo osoarena. Gainera, zinegotziak ez diren kideen herena beharko da.

6.- Artikulua. Deliberazioak

Batzordeko lehendakariak batzarrak zuzendu, eztabaidak antolatu eta bilerak ondo egiten direla bermatzeko komenigarriak diren neurriak hartuko ditu.

7.- Artikulua. Lan-batzordeak

1. Lan batzordeak osatu ahal izango dira batzordeari dagozkion gai zehatzak jorratzeko edo batzordearen gehiengoak beharrezkotzat jotzen duenean.

2. Lan batzordearen osaera, izena eta funtzionamendua batzordeak erabakiko du.

3. Lehendakariak udal-teknikarien edo kanpoko aholkularien laguntza eskatuko du, beharrezkotzat jotzen bada.

4.- Lan batzordeek jorratutako gaien berri emango diote batzordeari.

8. -Artikulua. Erabakiak hartzea

Batzordea erabakiak modu adostuan eta talde guztiak bultzatuta hartzen saiatuko da. Bela botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira eta berdinketarik egonez gero, lehendakariak kalitate botoa emango du. Botoak, aldekoak edo aurkakoak izango dira. Abstenitu ere egin daiteke.

Nolanahi ere, boto partikularrak har daitezke eta ados ez dauden alderdien iritziak agerrarazi.

Hartzen diren erabakien akta idazkariak jasoko du eta bilera bakoitzaren audioa grabatu egingo da.

Hamabost eguneko epean akta batzordeko kideei bidaliko zaie eta hurrengo batzarrean batzordeko kideen gehiengo soilaren aldeko botoekin onartuko da edo ez onestea erabakiko da.

Ezin izango da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan agertzen ez den gairik, salbu eta gehiengo osoz presakotzat jotzen bada; kasu horretan, eztabaidatu eta bozkatu egingo da, galde-eskeen kapitulua baino lehen.

Batzordearen erabakiak, proposamenak edo txostenak ez dira lotesleak izango edozein Udal organorentzat.

9. Artikulua. Funtzionamenduko barne arauak

Adierazitakoez gain Batzordeak, funtzionamenduko beste barne-arau batzuk onar ditzake.

IV. KAPITULUA.
BATZORDEAREN DESEGITEA

10. Artikulua. Batzordearen desegitea

Jasangarritasun Energetikoaren batzordea desegitea Udalbatzari dagokio. Hori gertatuko balitz, Batzordea desegiteko erabakia formalki komunikatuko zaie osatzen duen kideei.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitaz asteguneko epean, 4. Artikuluan adierazitako elkarte eta pertsonak, nahi izanez gero, Jasangarritasun energetikoaren batzordean parte hartzea eska dezake. Alkateak eskaera horiei erantzun eta onartutako pertsonak deituko ditu Batzordea eratzeko egingo den bilerara.

2. Jasangarritasun Batzorde Energetikoa formalki eratuta geratuko da horretarako deituko den bileraren bitartez.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean egongo da hamabost asteguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.”

c.- KONTRATUA ESLEITZEA: BEASAINGO UDALERRIAN ANTOLATUTAKO EKITALDIETARAKO AGERTOKIAK, KARPAK, AULKIAK, MAHAI TOLESGARRIAK ETA TARIMAK ALOKATZEKO ZERBITZUA, HORIEN ETA UDAL JABETZAKO ANTZEKO ELEMENTUEN MUNTAIA ETA DESMUNTAIA (MANTENTZEKO LANAK BARNE) ZERBITZUA. 2020ZEBO0086

Ezagutzera eman da, Kontratazioa mahaiaren proposamena, hau da:

“I.- Udalbatza Osoak 2021-01-28an erabaki zuen, aipatutakoa kontratatzeke baldintza pleguak onartzea eta deialdia egitea. Eusko Jaurlaritzako kontratazio plataforman deialdia argitaratu zen adieraziz proposamenak aurkezteko epea hamabost eguneko zela. Epea 2021-03-11n amaitu zen, eta aurkeztu diren lizitatzailleak hauek izan dira:

MONTAI PRODUKZIOAK, S.L.	2021-03-11	Epe barruan
--------------------------	------------	-------------

II.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, hau egiaztatu zen:

1. Aurkeztutako DEUC dokumentua zuzena da, baina ez da adierazten zein den Kontratua egikaritzeaz arduratzen den pertsona edo pertsonak adieraziko dira.

2. DEUC dokumentua sinatu duen pertsona eta bertan enpresaren ordezkari gisa azaltzen dena (M.^a Jesus Celaya Eguiguren) es dela A artxibo elektronikoa aurkeztu duen pertsona berdina, azken hau Aitor Elorza Gurrutxaga da. Biak berdinak izan behar dute.

III.- Ondorioz, 3 egun baliouduneko epea eman zitzaion errekerimendua jasotako (221-03-15) egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, honako honetarako :

- 1.- Kontratua gauzatzeaz arduratuko den pertsona edo pertsonak identifikatzeko
- 2.- Enpresaren legezko ordezkaria identifikatzeko.

Egun berean aurkeztu zen errekeritutako dokumentazioa, hau da:

- 1.- Kontratuaren arduradunak: 4 (Giza baliabideen eta finantzen arduraduna, muntaketen arduraduna, muntaketen enkargatua eta muntatzailearen laguntzailea).

- 2.- M^a Jesús Celaya Eguiguren andrearen aldeko notario-ahalardea.

IV.- Horren ondorioz, erabaki zen MONTAI PRODUKZIOAK, S.L.ri lizitazioan parte hartzea.

V.- 2021-03-22an B artxibo elektronikoa ireki zen eta formula automatikoen bidez ebaluatu ezin diren irizpideei dagokion dokumentazioa gai horretan teknikoa den bokalari pasatu zitzaion aztertu eta ebaluatu ahal izateko.

Akta honi I Eranskin moduan atxikitzen zaion txostena eman zen. Bere edukia azaltzeko Kontratazio Mahaia bildu zen.

Enpresa lizitatzailleak Memorian lortutako puntuazioa guztira, 35 puntukoa da, hain zuzen ere, baldintza pleguan adierazitako gehiena.

Kontratazio Mahaia ontzat eman zuen txostena eta bere gain hartu zuen.

VI.- 2021-03-31n 9,00etan, C kartazala (formula automatikoen bidez baloratuko diren irizpideak) ekintza publikoan ireki zen:

VII.- Lizitatzaillearen proposamena ondorengo da:

1) Neure egiten du kontratua klausula Administratiboen Pleguaren 6. Klausulan adierazitako prezio unitarioen arabera egikaritzeko, prezio horiei beherapen lineal bat aplikatuko zaiela %1,00 gehi BEZari dagokion zenbatekoa.

2) Hirugarren pertsonak enpresa esleipendunaren jabetzako elementuei egin diezazkieketen kalteen (olanak urratzea, pintaketak eta beste) gastuak Udalari ez eragiteko konpromisoa hartzen dut.

EZ

3) Neure egiten dut Beasaingo Udalaren jabetzako karpetaolanak urtean gutxienez behin garbitzeko konpromisoa.

BAI: urtean behin

VIII.- 2021-04-14an, bokal teknikoak txostena eman zuen adieraziz lizitatzaillearen puntuazioa ondorengo dela:

	MONTAI PRODUKZIOAK, S.L
MEMORIA TEKNIKOA MEMORIA TECNICA 35 P	35
FORMULA AUTOMATIKOEN BIDEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE FORMULAS MATEMATICAS 65 P	57,5
GUZTIRA PUNTUAK TOTAL PUNTOS	92,5 PUNTU

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Plenoa), ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo udalerrian antolatutako ekitaldietarako agertokiak, karpak, aulkiak, mahai tolesgarriak eta tarimak alokatzeko zerbitzua, horien eta udal jabetzako antzeko elementuen muntaia eta desmuntaia (mantentzeko lanak barne) zerbitzua, MONTAI PRODUKZIOAK, S.L.ri esleitzea.

Bigarren. Esleipena pleguen eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.

Hirugarren. Esleipen prezioa: baldintza administratiboen 6. klausulan finkatutako prezio unitarioekiko %1,00eko baja lineala.

Laugarren. Exekutatzeko epea: hiru urte beste bi urtez luzatzeko aukerarekin, baina urtez urte.

Bosgarren. Berme epea: 2 hilabete harrera egiten denetik kontatuta.

Seigarren. Kontratuaren arduraduna Zerbitzu Burua izango da.

Zazpigarren. Esleipendunari errekeritzea, hamar laneguneko epean errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkezteko:

- Zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak. Jarduera ekonomiko gainera zergan alta emanda egotearen agiria.
- Behin betiko fidantza, 6.327,96 €ko balioa duena.
- Erantzukizun zibileko poliza, 601.012,00 €koa.

Zortzigarren. Fidantza aurkeztutakoan, behin betiko esleipena emango da horretarako baimena Alkateari emanaz eta jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk pleguak onartzerakoan era esan genuen, hau da, egiten genuen hausnarketa zen garai batean obretako brigadari lan hauek kendu zitzaizkiola, brigada bera indartu beharrean eta

horren ondorioz aurka bozkatu genuen. Baita ere aipatu behar da enpresa honekiko ditugun zalantzak, bere garaian azaldutakoak. Beraz, ezezkoa bozkatuko dugu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guk koherentzia berdinari jarraituz, alde batetik pentsatuz brigadan lan hauek ez egitearekin berezko duen balio erantsi hori maizago eman dezaketela, askotan pasatzen zelako karpak et eszena tokiak muntatzen pasatzen zuten beraien lan-orduen zatirik handiena. Koherentzia hori mantentzen aldera eta enpresa honek aurrera jarraitzeko lege-bidea guztiak dituen ez esleipenaren alde egingo dugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

d.- BALDINTZA PLEGUAK ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA, BEASAINGO UDALERRIAN ERAIKIN ETA LOKALEN GARBIKETA ZERBITZUA ETA COVID-19 PANDEMIA EGOERAREKIN LOTUTAKO ERREFORTZU-GARBIKETEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO. 2021ZEBO0023

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko proposamena, aipatutako zerbitzua kontratatzeke baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

1.- *Prozedura*: irekia publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Loteak*: BI

4.- *Lizitazio prezioa*:

SORTA 1 (Beasaingo udalerrian eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzua). Lizitazio mota hauek zehaztuko dute:

A. *URTEKO PREZIOA: 317.631,49 € + BEZ*

B. *ZERBITZU BEREZIAK EGITEKO ETA KONTRATUA ALDATZEKO PREZIOA, ORDUKO: 21,36 €/h + BEZ*

SORTA 2 (Covid-19 pandemia egoerarekin lotutako errefortzu-garbiketen zerbitzua): 18,73 €/orduko + BEZ

5.- *Egikaritze epea*: 4 urte

6.- *Luzatzeko aukera*: 1 urte

7.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa*:

Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitazioarekin jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen aurkezpen daten arabera, 516.482,61 € izango da gutxienez. Zenbateko hori 87.3.a artikuluan 2. paragrafoan adierazitako eran egiaztatuko da.

8.- *Kaudimen teknikoa*:

Azken hiru urteetan zehar egindako lan eta zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda, kontratu honen xedea osatzen duten zerbitzu edo lanen antzekoak. Gutxienez 241.025,21 €-ko zenbatekora (kontratuaren urteko batez bestekoaren % 70) iritsi beharko du zenbatekoak urterik onenean, eta behar bezala azalduko dira zenbatekoak, datak eta lan edo zerbitzu horien hartzaile publikoa edo pribatua.

Zerbitzu bat kontratuaren xedea den izaera bereko edo antzekoa den zehazteko, ezaugarrien koadro honetako 2. atalean adierazitako CPV koderako jo beharko da.

9.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua: 35 egun natural, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita..*

10.- *Adjudikazio irizpideak:*

SORTA 1

1) Balio judizio bidez baloratzeko irizpideak:

Zerbitzu-proposamena: Preskripzio teknikoen agirietan ezarritako ataza- eta maiztasun-koadroan oinarrituta, lizitatzailleek ikastetxeek eska ditzaketen garbiketa-lan espezifikoak aztertuko eta proposatuko dituzte, besteak beste, honako alderdi hauetan: espazioak eta altzariak desinfektatzea, azalaren eta altzarien mantentze-lanak errazten dituzten tratamenduak, ehunak garbitzea, maiztasunak hileroko, hiru hilean behin edo sei hilean behin handitzea, eta abar, ezarritako garbiketa-estandarra areagotzeko.

Kontuan hartu ahal izateko, eskaintzen dituen abantaila funtzionalak eta horiek gauzatzeko dauden baliabideak eta gauzatzeko egutegia azaldu beharko dira. Haien garrantzia eta definizio-maila baloratuko dira. %18a

Ez dira kontuan hartuko beste atal espezifiko batzuetan baloratu behar diren alderdiak, hau da, zerbitzuaren zuzendaritzari eta kontratuaren jarraipena egiteko bitartekoei buruzkoak eta erantzuteko gaitasuna eta zerbitzu bereziak.. Ez dira baloratuko doako orduen poltsak.

Zerbitzuaren zuzendaritza eta euskarria: Zuzendaritza eta euskarri egokia edukitzeak lagunduko du kontratuak helburu duen zerbitzua hobeto ematen. Horrenbestez, aintzat hartuko dira eta eskaintzan adierazi beharko dira emandako giza baliabideak.

Kontuan hartu ahal izateko, argibide zehatzak eman beharko dira (identifikazioa, prestakuntza eta esperientzia) honako eremu hauetan:

Zerbitzua zuzentzeko langileak, giza baliabideak, laneko arriskuen prebentzioa, prestakuntza, administrazioa, ikuskapena eta kalitate-kontrola.

Gainbegiratze eta kalitate-kontrolerako ataletan, prestakuntza eta esperientziaren gain, kide kopurua adierazi beharko da.

Ez dira gehituko subrogatuko diren langileak. %6a

Kontratuaren jarraipena egiteko bitartekoak: Baloratuko dira eta eskaintzan adieraziko dira bezeroaren eskura jarri diren baliabideak kontratua betetzen denari buruzko informazioa izan dezaten: adibidez, bertara atxikitako langileen egoera, zerbitzuen taula edo jazoeren kudeaketa. %6a

Erantzuna emateko ahalmena eta zerbitzu bereziak: Zerbitzu bereziak, osagarriak edo presakoak emateko dauden bitartekoak eta espezialitateak adieraziko dira, hala nola, obra ondoko garbiketak, egoera katastrofikoak (uholdeak, suteak, lur-jausiak, etab.), garbiketa bereziak (ehunak, fatxadak, covid desinfekzioa. eta abar). Ez dira baloratuko hirugarren enpresen bidez egindako zerbitzuak (azpikontratatuak), enpresa lizitatzailaren orrian daudenak baizik. %5a.

2) Formula automatikoen bidez baloratzeko irizpideak:

URTEKO PREZIOA: %50a (formula)

0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarritzko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

$B_{max} \leq 50\% \gg P = 200 \times B$

$B_{max} > 50\% \gg P = 100 \times B / B_{max}$

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.

B: Baja = $1 - (\text{Eskaintako prezioa}) / (\text{Lizitazioaren gehieneko aurrekontua})$.

Bmax: Onartutako gehieneko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

OHI DENA BAINO GUTXIEGIZKO ESKAINTZATZAK

Eskaintza neurrigabeak edo ohiz kanpokoak direla pentsatuko da, onartutako eskaintzen batez bestekoa baino 15 puntu beherago dauden eskaintzak. Eskaintza ekonomikoaren bideraezintasuna zehazteko parametro objektibotzat hartuko dira soldata-betebeharrei, gizarte-segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, mediku-azterketei eta abarri erantzuteko beharrezkoak diren kostuak estaltzera iristen ez direnak.

ZERBITZU BEREZIAK EGITEKO ETA KONTRATUA ALDATZEKO PREZIOA,

ORDUKO: %15a (formula)

0 Puntu emango zaizkio gehieneko prezioari (21.36 €/orduko), eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

$B_{max} \leq 50\% \gg P = 200 \times B$

$B_{max} > 50\% \gg P = 100 \times B / B_{max}$

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.

B: Baja = $1 - (\text{Eskainitako prezioa}) / (\text{Lizitazioaren gehieneko aurrekontua})$.
Bmax: Onartutako gehieneko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

OHI DENA BAINO GUTXIEGIZKO ESKAINTZATZAK

Eskaintza neurrigabeak edo ohiz kanpokoak direla pentsatuko da, onartutako eskaintzen batez bestekoa baino 15 puntu beherago dauden eskaintzak. Eskaintza ekonomikoaren bideraezintasuna zehazteko parametro objektibotzat hartuko dira soldata-betebeharrei, gizarte-segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, mediku-azterketei eta abarri erantzuteko beharrezkoak diren kostuak estaltzera iristen ez direnak.

SORTA 2

COVI-19REN PANDEMIAREN EGOERARI LOTUTAKO ERREFORTZU-GARBIKETEN PREZIOA ORDUKO: %100A (FORMULA)

0 Puntu emango zaizkio gehieneko prezioari (21.36 €/orduko), eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

Bmax \leq 50% \gg P = 200 x B
Bmax $>$ 50% \gg P = 100 x B / Bmax

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.
B: Baja = $1 - (\text{Eskainitako prezioa}) / (\text{Lizitazioaren gehieneko aurrekontua})$.
Bmax: Onartutako gehienezko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

OHI DENA BAINO GUTXIEGIZKO ESKAINTZATZAK

Eskaintza neurrigabeak edo ohiz kanpokoak direla pentsatuko da, onartutako eskaintzen batez bestekoa baino 10 puntu beherago dauden eskaintzak. Eskaintza ekonomikoaren bideraezintasuna zehazteko parametro objektibotzat hartuko dira soldata-betebeharrei, gizarte-segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, mediku-azterketei eta abarri erantzuteko beharrezkoak diren kostuak estaltzera iristen ez direnak.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nuestra duda radica en lo siguiente: por qué se sacan dos lotes cuando puede ser uno sólo, ya que hasta el servicio de limpieza de edificios que se ha venido prestando más el refuerzo lo han llevado a cabo los mismos trabajadores.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Egokitasunagatik. Guk iaz zerbitzu hau martxan jarri genuenean, COVID-a ez zegoen. Hasiera batean sortutako beharrei erantzuna emate aldera, egin zena zen zegoen poltsa erabili horretarako aukera genuelako, baina iritsi zen momentu bat non kontratu-aldaketa sinatzen zen edo inporteetan gehiagotara gindoazen. Orduan etorri zen OARC-en Ebazpena esanez lehengo lizitazioa bertan behera geratzen zela eta berri bat atera behar genuela. Gaur egun bi zerbitzu ezberdin ditugu. Duela urte eta piko zerbitzu bakarra zen eta horri gehitu genion sortu zen behar hori. Gaur egun, ordea, zerbitzu egonkor bat ikusten dugu, egoera tamalgarri hau pasatzen denean mantenduko dena (eraikinen garbiketa) eta aldiz, bestea, denboraldi batekoa. Guzti horrek eraman gaitu bi sortetan ateratzea."

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros lo que vemos es que de los trabajadores a subrogar (14), cuatro no llegan a la jornada del 100%. Si el servicio de refuerzo pudiera ir junto al otro, como venía siento hasta ahora, podría mejorar esa situación y aumentar la jornada de esos trabajadores, ya que para ellos el tener que hacer el servicio de desinfección ha sido una mejora. Teniendo ello en cuenta nos parece más positivo que no existen lotes."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Azkenean, horrela hasi izana denboraldi bati erantzuten zion. Denboraldi luzean ezinezkoa izango zen horrela jarraitzea. Egokiagoa ikusi da bi sortetan ateratzea. Etortzen den enpresak behar bada langileen lanaldia gehitu egingo du. Hori ez dakigu."

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "La subrogación sólo es en lote 1."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Aukera dago bi sortak enpresa batek eramateko edo enpresa ezberdinek. Enpresa horien erabakia izango da edo pertsonal berria kontratatu edo daudenekin zerbitzua eman."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Batzordean aipatu genuen hizkuntza betebeharrari buruz esan, egia dela Dekretuak dionaren arabera ulertzen dugu, agian zerbitzu mota honetan langileek derrigortasunik ez izan beharra. Aipamena egin nahi genuen Plazapekoan bezala Dekretu honek ahalbideratzen digula kontratuetan jartzea. Batzordean horretaz hitz egin genuenez, aipamena egin nahi genuen."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Ados. Oinarri juridiko hori aurkitzearekin pozik, esango genuke, etorkizuneko kontratazioetarako ere bide hori irekita geratzen delako. Kasu honetan herritarrekin hainbesteko kontaktuak ez dagoenez ez dugu jarri baina bide bat egiteko aukera ematen du."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)

Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

5.- MOZIOA. BEASAINGO EH BILDU UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ENERGIA IRAUNKORTASUN LEGEA BETETZEKO UDALEK BEHAR DUTEN FINANTZAZIOAREN INGURUAN. 2021IDBO0015

Alkate andreak aldeez aurretik hitza emanda, Nerea Manzidor Mendizabal andreak ondorengo mozioa irakurri du:

“2021eko martxoaren 1ean prentsan iragarri zenez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Gauzatu Energia programa martxan jarriko du, besteak beste Udalek Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak ezarritako energia planen inguruko betebeharretan diruz laguntzeko.

Programa honen bitartez Eusko Jaurlaritzak 100 milioi euro jarriko ditu udalen eskura, bi formularen bidez:

Bata, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) udaberri honetan jaulkiko duen programa bat, 10 milioi euroko dirulaguntzekin, udalek eta tokiko erakundeek udalerrri bakoitzeko "osasun energetikoaren" egoerari buruzko auditoriak egin ditzaten.

Bigarrena, "0" intereseko finantzaketa-lerroa, Finantzen Euskal Institutuak kudeatua, udalen auditorietan aurreikusten diren ekintzen inbertsioei aurre egiteko, eta efizientzia- maila eta energia garbiaren kontsumoa hobetzera bideratuta.

Datozen hamarkadan udalen jasangarritasun proiektu eta politikak erabakigarriak izango dira ingurumenaren zaintzan eta klima aldaketaren aurkako lanean. Zentzu honetan, Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak udalei hainbat betebeharrak ezartzen dizkie (besteak beste instalazioen inbentarioa egitea, horien energia-kontsumoa adieraziz, eraikin eta instalazio guztiek energia elektrikoaren kontagailua izatea, 70 kW-tik gorako potentzia termikoa duten eraikinek dagokien ikuskaritza energetikoa izatea, urte anitzeko jarduera energetiko-ko planak diseinatzea, administrazioaren titulartasuneko eraikin guztiek eraikinen ziurtagiri energetikoa izatea, mugikortasun plan bat izatea eta energia kontsumoa murriztea).

Gainera, COVID19aren pandemiak udalen finantzazioa zeharo murriztu du, eta hainbat udalek zailtasunak izango dituzte iraunkortasun politika sendoak egikaritzeko; beste batzuek ez dute behar besteko ahalmena izango arlo honetan aurreikusita dituzten proiektuak gauzatzeko; eta baliteke ere udal batzuek maileguak jasotzeko aukerarik ere ez izatea.

Horregatik, Gauzatu Programaren baitan finkatzen diren bi formuletan aldaketa eman beharra dago: dirulaguntzen kopurua nabarmen gehituz.

Hori dela eta, BEASAINGO Udalak honako hau erabakitzen du:

1.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzen diogu Gauzatu Programaren baitan jasotzen den dirulaguntzen kopurua handitu dezala 2021 ekitaldirako gutxienez 75 milioi €tara, udalek Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak ezarritako betebeharrak gauzatzeko laguntzeko.

2.- Datozen ekitaldietan ere Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak udalei ezarritako betebeharrak betetzeko nahikoa finantzazio bermatzen duten programa zein lan lerroak bermatu ditzala.

3.- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari jakinaraziko zaio.”

Alkate andreak kontrako mozioa aurkeztu du eta hitza eman dio Adur Ugartemendia Leunda zinegotziari (EAJ-PNV), kontramozioa irakurtzeko. Testua ondorengoa da:

**“EUSKADIKO ENERGIA JASANGARRITASUN 4/2019 LEGEAREN GARAPENAZ
MOZIOA, TOKI ERAKUNDEEN ALDETIK. ARRAZOIA**

Eusko Jaurlaritzak hamarkadak daramatza energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien aldeko planak garatzen. 2021. urteko ekitaldiari begira, zeregin hori era nabarmenean areagotu da; batez ere, Euskadiko Energia Jasangarritasun 4/2019 Legearen bultzadaren ondorioz. Eusko Jaurlaritzak 100 milioi euro jarriko ditu udalen eta toki erakundeen eskura, aipatutako legean ezarritako eskakizunak eta proiektuak betetze aldera.

Euskadiko Energia Jasangarritasun 4/2019 Legea betetzeak, errealitatea egokitzea eskatzen dituen erronketara hurbiltzeak inbertsio ahalegin handia ekarriko dute, toki erakundeen aldetik, are konplexuago dena, COVID19 Pandemiak eragindako egoeraren ondorioz.

Eusko Jaurlaritzak, aurten, bi lankidetzeta-formula eratu ditu, erakunde publiko guztiek energia jasangarritasunaren inguruko adierazleak hobetzeko dituzten erronkei aurre egiteko, 2030. urtera begira:

1.- Energiaren Euskal Erakundeak aurten bertan, 2021ean, 10 milioi euroko dirulaguntza programa bat abiaraziko du, udalek eta toki erakundeek energia auditoriak egin ditzaten euren udalerrietan, bertako energia egoera sakontasunez ezagutzeko asmoz.

2.- Energiaren Euskal Erakundeak 0 intereseko finantza lerro bat jarriko du martxan, auditorietan aurreikusiko diren jardueren inbertsioak aurrera eramateko. “Gauzatu energia” izeneko finantza lerro horrek 90 milioi euroko aurrekontua izango du.

Aipatutako dirulaguntza eta finantza lerro horiez gain, badira ere lehendik bideratzen ari diren beste laguntza batzuk, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Energiaren Euskal Erakundeak energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzeari begira garatzen ari direnak, hala nola:

- Energia eraginkortasunaren aldeko etxebizitzaren birgaitzea laguntza programa: 25,1 M€, 2021-2022 ekitaldietarako*
- Garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioak: 1,9 M€*
- Toki administrazioan energia eraginkortasunaren eta eguzki termikoaren aldeko inbertsioak: 1,4 M€*
- Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak: 1 M€*
- Geotermia energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak: 0,9 M€*
- Autokontsumo elektrikorako energia berriztagarrien alorreko instalazioetan inbertsioak: 5,7 M€*
- MOVES III Plana (birkargatzeko guneak, ibilgailu arinen erosketak...): 18 M€*

Ekonomia eta energia arloko eraldaketa handi-handiek maila goreneko jarduera estrategiko garrantzitsuak eskatuko dituztela jakitun, baita tokian tokiko egitasmo txikiagoak ere, XXXXko Udalak hauxe erabaki du:

AKORDIOA

1.- *Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzea toki erakundeekin lankidetzara eta laguntza areagotzeko eta sendotzeko, ahalik eta proiektu gehien suspertzeko xedez.*

2.- *Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari premiatzea “Gauzatu energia” programara bideratutako baliabideak euskal udalerrira guztietara era zuzenean helduko direla bermatzeko eta toki mailako ekimenak sustatzeari begira nahikoak izateko.*

3.- *Gure Lurralde Historikoko Foru Aldundiari eskatzea “Gauzatu energia” programarekin zorpetzen uzteko udalei, baldin eta egin beharreko inbertsioek hala eskatzen badute.*

4.- *Eusko Jaurlaritzari eskatzea energia berriztagarrien alorreko instalazio berriak sustatzen jarraitzeko.*

5.- *Lortutako edo adostutako akordioa dagokien erakundeei helaraztea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En nuestro caso el punto 1 sería igual. El segundo punto: instar al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco que garantice en los próximos ejercicios que los recursos destinados al programa “gauzatu energia”, llegue de manera directa al conjunto de los municipios vascos para financiar de forma suficiente las diversas iniciativas locales puestas en marcha para dar cumplimiento a la Ley 4/2019 de sostenibilidad energética de Euskadi. El tercer punto sería: pedir al Gobierno Vasco que prosiga apostando por unas instalaciones de energías renovables.”

Diferimos en lo que se refiere a vuestro punto tercero.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gobernu Batzordean saiatu gara ea adosten genuen mozio bateratu bat, baina guri ezinbestekoa iruditzen zaigu kontuan izatea, ardura partekatua izateaz gain, herri guztietako egoera ekonomikoa berdina ez dela eta Jaurlaritzak bermatu beharko lukeela finantzazio hori. Bete beharreko legea da, denok horren alde apustua egin behar dugu. Beste ezberdintasun bat izango litzateke ondorengo: 4.puntuan guk gehitzen dugu, “gauzatu energia” programa ahalik eta azkarren martxan jarri eta epe bat jartze arren hiru hilabete izatea. Bestela iruditzen zaigu mozioa bat izan ordez, aitortza bat dela.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zuek kentzen duzuen puntu hori, azkenean gehigarria da. Izan daiteke finantzazioa bermatzea, baina gure fiskalizazio eskumena Foru Aldundiak du eta orduan maileguak eskatzeko aukera hori ahalbidetzea. Zentzu horretan gehigarria den heinean, mantentzearen alde egingo genuke. Testuan proposatu dituzuen aldaketekin, ardura partekatua dela iruditzen zaigu eta hiru hilabeteko epea jartzea, esaten dugunean datorren hamarkadetakoa erronka dela, hertsia da.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, kontramozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin kontramozioa onartu da.

6.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman da ondorengo ebazpenen zerrenda:

- 2021eko martxoaren 22tik 2021eko maiatzaren 2rarte emandako Ebazpenak.
- 2021eko martxoaren 22tik 2021eko maiatzaren 2rarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

EZ FESTAK

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Aurreko bozeramaile batzordean ere esan nuen baina EH Bildutik kezka azaldu nahi dugu Beasaingo “ez festen” ingurukoa. Denok gaude ea maiatzaren 9an zer pasatuko den alarma egoera dela eta ez dela, baina iruditzen zaigu alarma egoera altxatzen bada ere egoera zail baten aurrean aurkitu gaitzkeela. Lehengo urteko esperientzia badugu eta aurten iruditzen zaigu horrelako eszenatoki baten aurkitu gaitzkeela. Udal gobernari galdetzen diogu ea zer egiteko asmoa dagoen edo zein neurri hartu behar diren, adibidez badaude herri batzuk elkarteekin batera idatzi bat aurkeztu dutena. Hausnarketa hori ekarri nahi genuen udalbatza honetara, gero ez gertatzeko lehengo urtekoa. Guk egiten genuen irakurketa zen ardura herritarren esku geratzen zela eta udalbatza honek ez zuen inolako ardurarik hartu pasatu ziren gauzekiko. Gero ez ditzagun eskuak burua bota eta esan, aurreikustea genuela. Jakin nahi dugu neurriak hartu behar diren, zerbait egin den tabernariekin, aforo kontuekin, poliziaren presentzia areagotuko den, etab.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aipatu dituzu “ez festak”. Nik berriro errepikatu nahiko nuke aurten, tamalez, berriro ere ez ditugula Beasaingo festak izango. Horrek ez du esan nahi etxean egongo garenik, aterako gara eta duela urte batzuk bezala eta COVIDan eraginaz ere jarraitu dugu kultur programa ekitaldiak antolatzen, beti ere betebeharreko segurtasun neurriak betez. Oraingoan ere, maiatzean zehar, hainbat ekintza programatu ditugu. Beti esaten dugu, kaltetuentarikoak ere kultur eragileak dira eta lagundu nahi baditugu, betebeharreko baldintzak beteta, horretan eragin behar dugu eta hori da gure autua. Hori esanda eta, maiatzaren 9an tarteko, datozen egunak ez dira errazak inorentzat. Momentu honetan ez dakigu zer edukiko dugun ordutegi aldetik. Lanketan ari gara udaltzainekin, ertzainarekin ere bai baina ikuskizun gehienbat maiatzak 9tik aurrera zein eszenari izango dugun. Aldaketa ostean tokatuko zaigu baina festarik ez dago, orduan nire ustetan kulturari egin diezaiokegun laguntzarik hoberena dela denok arduratzea eta kontuz ibiltzea. Datozen egunetan aldaketa hauek tarteko komentatuko ditugu.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk kultur ekimenak egiteko arazorik ez dugu ikusten. Beti babestu izan dugu hartu behar diren neurriak hartuta. Iruditzen zaigu maiatzeko agenda gehiegi bete dela eta hori da data berezi hauetan zerbait egite arren. Guretzat hori akatsa izan daiteke jendeari bultzatzen diogulako gehiago ateratzeko horretan. Nahiz “ez festa” egon egia da, festetan egiten diren ekintzak programatu direla, adibidez, agintarien sokadantza. Guk esan nahi

duguna da festa ez badira, ez dela inolako ekintzarik egiten. Guk agintarien sokadantzan ez dugu parte hartuko iruditzen zaigulako ez dugula inolako legitimitaterik besteei esateko hainbat ekintza ez ospatzeko.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gertatzen da tradizioari lotutako ekintza batzuk haria mantentze aldera...”

Nerea Manzidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai baino tradizioa izan daiteke baita ere mozorrotze eguna. Bakoitzarentzat gauza ezberdina izan daiteke. Hor ba dago marra gorri bat ez dakiguna non jarri. Ez badira festak, ez dira festetako ekintzak egiten. Tradizioa izan edo ez. Hurrengo urtean egingo ditugu. Ikuskizun gaude ea zer pasatzen den maiatzaren 9an, baina uste dut zerbait lantzen hasi gintezkeela. Lazkaon egin dutena dugu adibide. Elkarte guztiekin idatzi bat egin dut eta idatzia ikusgai egon da festetako egunetan. Horrelako zerbait egitea izango genuke. Ez badago ordutegirik denok dakigu zer pasatu daitekeen. Denok dugu buruan iaz pasatu zena. Gure aldetik esan, eskua luzatzen dugula.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Eskertzen da zuen esku luzatzea. Izango dugu elkarren berri ezinbestean.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hiruretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.